eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

# BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIA, ARABAKO CAMPUSEAN INGELES ZIENTIFIKO/AKADEMIKOKO PRESTAKUNTZA ZERBITZUA KONTRATATZEKO

## I. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea ingeleseko ikastaro espezializatuak ematea eta ingelesez idatzitako testu zientifiko-akademikoak berrikusteko eta hobetzeko laguntza ematea izango da.

Zerbitzu horren hartzaile den kolektiboa unibertsitate-komunitate osoa da, Arabako Campuseko ikasleak, irakasle eta ikertzaileen langileak eta AZPkoak barne.

## II. KONTRATUAREN HELBURUAREN ZEHAZTAPENA

1. **Ingeleseko ikastaro espezializatuak irakastea** unibertsitate komunitate osoari, Arabako Campuseko ikasleak, irakasle eta ikertzaileak, eta AZP barne.

Ikastaroak mailaka (EEEBk markatuta) eta asteroko maiztasunaz (jardueren arabera aldatuta) antolatzea aurreikusten da, unibertsitate komunitatearen beharren arabera. Ikastaroak lauhilekoka eskainiko dira (urria-abendua eta otsaila-maiatza) eta aukera egongo da ikasturtean zehar ikastaro trinkoren bat sartzeko, osagarri moduan. Ikastalde bakoitzak 8 pertsona izango ditu gutxienez eta 25 gehienez.

Saio tekniko horiek hizkuntzaren ahozko eta/edo idatzizko gaitasuna garatzeko gai jakin baten inguruan egingo dira, eta ikasturte bakoitzeko 82 eskola ordu hartuko dituzte gehienez.

2. **Ingelesez idatzitako testu zientifiko-akademikoak** (hala nola, GRAL, MAL), artikulu zientifikoak edo hedapenekoak, doktorego tesien laburpenak eta lan akademikoak oro har berrikusteko eta hobetzeko laguntza. Berrikuspen zerbitzuaren helburua da eskatzaileei baliabideak ematea, testu espezializatuen ortografia eta gramatika zuzentasuna eta idazketa estiloa ziurtatzeko.

Ikasturte bakoitzeko 60 lanordu aurreikusi dira gehienez, gutxienez 15 artikulu zientifiko berrikusi ahal izateko planifikatuta. Orduen banaketa testuak jasotzen diren unearen araberakoa izango da. Horrela, enpresak nolabaiteko malgutasuna izan beharko du zentzu horretan.

Lehentasun normalarekin eta altuarekin sailkatutako lanak egiteko gehieneko epeak honako hauek izango dira, orri estandarrei (1.800 karaktere, zuriuneak barne) eta lanegunei dagokienez:

- 2 orrialde baino gutxiago: egun 1
- 3 eta 7 orrialde artean: 2 egun
- 8 eta 14 orrialde artean: 3 egun

- 15 eta 30 orrialde artean: 5 egun
- 30 orrialde baino gehiago: 30 orrialde/5 eguneko epearekiko proportzioan.

Gehieneko epe horiek garaiz luza daitezke, lanaren koordinatzaileak egokitzat jotzen dituen kasuetarako, haien izaera, konplexutasuna edo inguruabarrak kontuan hartuta. Kasu horietan, gehieneko epe berria adieraziko da beti.

Ingeles zientifikoko/akademikoko prestakuntza-zerbitzuaren barruan sartzen dira ikastaroak antolatzea eta kudeatzea eta testuak berrikusteko laguntza ematea. Lauhileko bakoitzeko 5 ordu kalkulatzen dira, ikasturte bakoitzeko 10 ordu guztira, deialdi publikoen berezko administrazio zereginetarako, hala nola deialdi horien zabalkundea, inskripzioak jasotzea, taldeak osatzea, ikasleekin komunikatzea, testuak jasotzea eta berrikuspen epeak eta ordutegiak esleitzea.

## III. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZAK

Enpresa kontratistak solaskide bat izendatu beharko du, kontratuak irauten duen bitartean erabateko prestasuna izango duena.

1. Baldintza orokorrak

Zerbitzua bertako irakasleek emango dute.

Enpresak malgutasun nahikoa izan beharko du jardueretako edozein egiteko, bai aurrez aurre, bai online.

2. Deialdiaren diseinua.

Zerbitzuak Arabako Campusak onartzen duen egutegiaren eta ordutegi erregimenaren arabera eskainiko dira. Campusak beretzat gordetzen du zerbitzu horiek aldatzeko ahalmena, interes publikoaren arabera, kontratista den enpresak egiten duen proposamenean oinarrituta, lauhileko bakoitzaren hasieran, taldeak osatu ondoren.

Ikastaroren bat ez bada egiten taldea osatzeko izen-emate nahikorik ez dagoelako, alderdiek jarduera alternatiboaren baldintzak adostuko dituzte: tailerrak edo workshopak, klase-masterrak, mintegiak, solasaldiak, sinposioak, mahai-inguruak, eztabaidak, solasaldiak, prentsaurrekoen edo erakusketa publikoen simulazioak, elkarrizketak, topaketak, ideia-laborategiak, foro birtualak, bisitak, zinema, irteerak edo antzekoak.

Jarduera presentzialak Arabako Campuseko instalazioetan egingo dira, beharrezko euskarri informatiko eta ikus-entzunezkoa izanda. Nolanahi ere, agiri honen xede diren jarduerak kudeatzearen ondoriozko zereginak enpresa kontratistak berak egingo ditu bere instalazioetan.

3. Zerbitzua zabaltzea eta kudeatzea.

Prestaketa lanak, gestio lanak eta jardueren zabalkunde eta publizitate lanak behar besteko denborarekin egingo dira, gutxi gorabehera 3 aste lehenago, jarduerak behar bezala zabaldu eta garatuko direla bermatzeko.

UPV/EHUrekin lankidetzan arituko da antolatutako jardueren zabalkundean eta publizitatean.

4. Zerbitzuaren analisia

Lauhileko bakoitzaren amaieran, enpresa kontratistak kontratatutako zereginen jarraipen txosten bat emango dio UPV/EHUri, besteak beste, bertan jasoko direlarik egindako jarduerak, matrikula, ikasleak ikastaroetara joan izana eta ikastaroen aprobetxamendua, bai eta gogobetetze inkesten emaitzak ere, hobetzeko proposamenak zehaztuz.

Uztailean, kontratistak ikasturtearen urteko memoria aurkeztuko du, zerbitzua ematearen ondoriozko datu eta jarduketa guztiekin.

5. Alderdi orokorrak

Eskaini beharreko zerbitzuak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez egingo dira, enpresa kontratistak egin beharreko itzulpenak eginez. Hiru hizkuntzen tratamendu zuzen eta egokia egiteko ahalegina egingo da.

Kontratu honen xedea dela-eta egiten diren publizitate eta komunikazio sistema guztietan, enpresa kontratistak UPV/EHUren erakunde nortasuna bete beharko du, Markaren Funtsean jasota dagoena. Diseinu guztiak enpresa kontratistaren kontura izango dira eta UPV/EHUren oniritzia izan beharko dute.

Enpresa kontratista izango da UPV/EHUren jabetzakoa den eta lana egiteko erabili behar den azpiegitura behar bezala erabiltzearen erantzule. Azpiegitura hori galdu edo hondatu izana erabilera desegokiaren ondorio zuzena denean, berriro jarri beharko du.

Vitoria-Gasteizen, sinadurari dagokion egunean.

EIDER GOÑI PALACIOS - 72739114G

Firmado digitalmente por EIDER GOÑI PALACIOS - 72739114G
Fecha: 2023.06.01 14:00:32 +02'00'

Eider Goñi Palacios
Arabako campuseko Euskararen, Ikasleen eta Mugikortasunaren arloko Zuzendaria